

## **JUAN DE LA CIERVA 2019** **DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** ***"Formación" modalitatea***

### ***Dirulaguntzen ezaugarriak:***

MCIUK 225 laguntza banatzeko deialdia egin du doktore gazteen kontratazioa doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabili ez ziren Espainiako I+G beste zentro batzuetan bultzatzeko. Lau plaza gordetzen dira %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko.

### ***Kontratuen ezaugarriak:***

Kontratuek bi urteko iraupena izango dute, gehienez. UPV/EHUn hasiko diren onuradunek 21.500 euro gordin jasoko dituzte urtean.

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

Baldintzak deialdiko oinarrien 37. artikuluan kontsulta daitezke.

**GARRANTZITSUA:** Hautagaiek eskatu behar dute doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabilitako zentroa ez den **beste I+G zentro batean** hasteko. Helburu horri begira, bereizi egin behar dira doktore titulua ematen duen ikastegia (unibertsitatea) eta doktore titulua lortzeko gaitasun eta trebetasunez jabetzera bideratutako ikerketa jardueren multzoa garatu denekoa.

**37.1.a) artikulua ezarritakoa betez, UPV/EHUK ez du mugikortasuna justifikatzeko memoriarik egingo.**

### ***UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:***

Tutoreek bermatuta eduki beharko dute funtzionario lotura edo lan kontratua UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik laguntzak dirauen 2 urteak amaitu arte.

Tutoreak, modalitate honetan, eskaera bakarrean ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete ezean, bi eskaeretatik kanpo geldituko dira.

### **GARRANTZITSUA:**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balidatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

### ***Eskaerak aurkezteko epea hautagaien artean:***

**2019ko abenduaren 18tik 2020ko urtarrilaren 15eko 14:00ak arte.**

### **GARRANTZITSUA:**

Hautagaiek berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balidatzeko, **2020ko urtarrilaren 22ra arte**, hain zuzen ere.

### **Hautagaiek aurkeztu beharreko eskaera:**

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

Komeni da [ohiko galderen zerrenda](#) kontsultatzea MCIUren webgunean.

### **UPV/EHUko izapidea:**

UPV/EHUn adskribatu gura duten hautagaiek dokumentazio hau igorri beharko dute **2020ko urtarrilaren 15era arte (hori ere barne)** [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVA](#)
- c. NANaren fotokopia
- d. Doktore tituluaren fotokopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen ereduaren.
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Ikertaldearen historial zientifiko eta tekniko (5 urtekoa).

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balidatuko epez kanpo igorritako dokumenturik duen eskaerarik.

### **GARRANTZITSUA:**

Bestalde, eskaera egiteko formularioa jatorrizko sinadurarekin bidali beharko dute **PAPER EUSKARRIAN** posta ziurtatuaren bidez edo barruko postaz helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)  
Errektoregoaren eraikina  
Sarriena auzoa z/g  
48.940 Leioa (Bizkaia)

### **MCIUko kontaktua:**

Eskatzaileek MCIUri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

[http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta\\_ayudas](http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta_ayudas)

### **UPV/EHUko kontaktua:**

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva-Formación" adierazita.

### **Informazio gehiago:**

[Esteka](#)